

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIO UDALA

Alkoholaren eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa eta nikotina askatzen duten gailuak kontrolatzeko neurriak arautzen dituen udal ordenantza behin betiko onartzea

2022ko urtarrilaren 31ean, Laudioko Udalaren ohiko osoko bilkurak alkoholaren eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa eta nikotina askatzen duten gailuak kontrolatzeko neurriak arautzen dituen udal ordenantzari hasierako onespina ematea erabaki zuen.

2022ko otsailaren 25ean, jendaurrean jartzeko iragarkia argitaratu zen ALHAOn, 24. zenbakian, bai eta udalaren webgunean eta beste gizarte-baliabide batzuetan ere. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako epea igarota, eta lege-testu beraren 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, alkoholaren eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa eta nikotina askatzen duten gailuak kontrolatzeko neurriak arautzen dituen udal ordenantzaren testua osorik argitaratu behar da, eta Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan adierazitako hamabost egun balioduneko epea igaro ondoren jarriko da indarrean.

Laudio, 2022eko apirilaren 26a

Alkatea

ANDER AÑIBARRO MAESTRE

ALKOHOLAREN, TABAKOAREN ETA NIKOTINA ASKA DEZAKETEN DUTEN GAILUEN SUSTAPENA, PUBLIZITATEA, SALMENTA ETA KONTSUMOA KONTROLATZEKO NEURRIAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

Hitzaurrea

Ordenantza hau jarraian ageri diren lege-testuetan udalei aitortzen zaizkien eskumenak erabilita eman da: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko, apirilaren 25eko 14/1986 Legea, hau da, Osasun Lege Orokorra, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testu bategina onestekoa, apirilaren 17ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, azaroaren 26ko 187/2019 Dekretua, edari alkoholadunen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen seinaleztapenari buruzkoa nahiz gainerako arau osagarriak.

Herritarren intereseko balioak dira osasuna, ingurumena, adingabeen hezkuntza, aisialdiaren erabilera egokia eta beste zenbait, eta, beraz, komunitatearen mesedetan horiek babesteko, ekintza eraginkorrak bideratu behar dituzte botere publiko guzti-guztiek, eta, zehazki, udal administrazioak ere.

Ekainaren 25eko 18/1998 Legean, Droga-mendekotasunen inguruko Prebentzioari, Asistentziari eta Gizarteratzeari buruzkoan jasoa zetorren dagoeneko esku-hartzeen izaera pedagogikoa, prebentzioaren esparruko komunitate-estrategia indartzeko. Horren ostean, zehazkiago, 2011n onetsi zen 1/2011 Legea, droga-mendekotasunen inguruko esku-hartzeak Europar Batasuneko eskakizunetara eta Estatuaren oinarriko legeetara egokitzeko, batez ere, tabakoaren erabilerari dagokionez. Aldaketa horren bidez, orokorki debekatu zen erabilera publikodun espazio itxi guztietan erretzea, eta, osasun publikoaren ikuspegitik, herritarren osasuna babesteko neurrietan aurrera egiteko xedea izan zuen, zehazki, tabakismoaren prebentzioa eta kontrola eginda.

Azkenik, apirilaren 7ko 1/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Arreta Integralari buruzkoan eutsi egiten zaie udalerriei emandako eskumenei eta esku hartzeko ildo gisa ezartzen du drogen eta adikzioak sor ditzaketen jardueren eskaintza murriztea, arauen eta kontrolen bidez daukagun araudia betearazita. Drogen eskaintza murriztearekin eta erabileraren kontrolarekin erlazionatutako esku-hartzeei dagokionez, adikzio-gaitasuna duten substantziak jasotzen dira Legean, eta horietako askoren kontsumoa oso errotua dago gurean, besteak beste, alkoholarena eta tabakoarena.

Tabakoa oraindik arazo nagusienetakoa da osasun publikoari dagokionez, heriotza eragin dezakeen eta prebenitu litekeen kausa nagusia baita; gainera, bizi-kalitatea galtzea eragiten du eta bizi itxaropena ere murrizten du. Osasunaren Mundu Erakundeak alkohola pertsonaren osasun fisiko, psikiko eta sozialerako drogarik kaltegarrienetakoa dela aitortzen du, bereziki adingabeentzat, adin horretan sortzen ari baitira osasun ohiturak; eta egoera benetan larria izaten da gizarte tolerantzia handia denean, gure inguruan gertatzen den bezala.

Berritasun gisa, nikotina aska dezaketen gailuak arautzen dira 1/2016 Legean, hau da, nikotina duen lurruna kontsumitzeko erabili daitekeen edozein produktu, haren osagaiak eta hura birkargatzeko ontziak.

Ordenantza honen xedea da legezko substantzien kontsumoa, eskaintza eta publizitatea mugatzeko neurriak arautzea, izan ere, legez kanpoko drogak zigor edo administrazio arloko arauen bidez kontrolatzen baitira. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da alkoholari dagokionez helburua dela adingabe eta gazteek substantzia horiek eskura ez izatea, eta ahal beste atzeratzea kontsumitzen hasteko adina. Tabakoari dagokionez, eta kontuan hartuta erretzen ez duten biztanleen osasunean tabakoak duen eragina, beharrezkoak izaten dira erretzen ez dutenen osasuna babesteko eskubidea bete dadin.

Nikotina askatzen duten gailuei dagokionez eta Munduko Osasun Erakundearen gomendioei jarraikiz, arrazoizkoa dirudi pentsatzea gailuak substantzia hori aska baldin badezake, erabiltzaileengan nahiz hirugarren pertsonengan izan dezakeen eragina ez dela tabakoarena-rekiko desberdina.

Aipatzekoa da ordenantza honen xedea ez dela substantzia horien erabilera debekatzea, izan ere, droga-kontsumo guztiak ez baitira berez osasunerako problematikoak edo kaltegarriak, eta oinarrian horiek hautatzeko eta horiekin batera bizitzeko askatasun indibiduala dagoelako. Hala ere, herritarrak kontsumoaren arriskuetatik babestea da Legearen zeregina, eta, bereziki, adingabeak babestea. Ezin ukatuzkoa da droga-erabilera batzuen eraginak txarrak direla, baita suntsigarriak ere, adikzioa eragiten dutela eta osasuna kaltetzen dutela, hala kontsumitzaileena, nola gertukoena. Bereziki txarrak izaten dira egoera horiek adingabeek pairatzen dituztenean, euren garapen-prozesuan eragin bereziki txarrak izan ditzaketelako.

Azken batean, ordenantza honen helburua, funtsean, drogen kontsumoa prebenitzea baino gehiago, abusuzko kontsumoa prebenitzea da, horri lotutako kalteak murrizteko ikuspegia aplikatuta eta, aldi berean, adostutako prebentzio-neurriak lehenetsita zigor-neurrien ginetik.

Udal ordenantza garatu eta martxan jartzeko, bereziki garrantzitsua da udal arduradunek izan dezaketen papera lehenago aipatutako prebentzio-dimentsioari dagokionez; zehazkiago, legezko substantziak adingabeei saltzeari dagokionez eta zenbait lekutan kontsumoa murrizteari dagokionez. Beraz, ikuspegi guztietatik beharrezkoa da udal administrazioak honi dagokionez hartzen dituen neurriak arautzeko xedapenak ematea, gorago aipatutako legedia aintzat hartuta, Udalak lehenesten dituen jarduketa-esparruak eta konpromisoak zehazten eta argitzen dituelako, Legearen erabateko betetzea gorabehera.

ATARIKO TITULUA**1. artikulua. Helburua**

Xedea. Ordenantza honen xedea da Laudioko udalerrian edari alkoholodunen eta tabakoaren salmenta eta kontsumoa kontrolatu, sustatu eta iragartzeko neurriak arautzea, toki-eskumenen esparruan.

2. artikulua. Eremua

Ordenantza hau arautzeak Udal Administrazioa behartuko du beti, eta bereziki edari alkoholodunekin eta tabakoarekin zerikusia duten ekitaldietan, jolasguneetan eta jaiegunetan edo jarduketetan bere eskumenak gauzatzeko parte hartzen duenean.

I. TITULUA: ALKOHOLDUN EDARIEN ETA TABAKOAREN SUSTAPENA, PUBLIZITATEA, SALMENTA ETA KONTSUMOA KONTROLATZEKO NEURRIEZ**1. KAPITULUA: ALKOHOLDUN EDARIEN, TABAKOAREN ETA NIKOTINA ASKA DEZAKETEN GAILEN PUBLIZITATEA, SUSTAPENA NAHIZ KONTSUMOA MUGATZEKO NEURRIAK****3. artikulua. Publizitatearen baldintzak**

Honako muga hauek ezartzen dira adierazitako produktuen publizitatean:

A) Alkohola. Publizitatea ezingo da berariaz adingabeei edota haurdunei zuzenduta egon, eta bertan ezin izango dira agertu adingabeak edari alkoholodunak kontsumitzen.

B) Tabakoa. Debekatua dago tabako-produktuen publizitate guztia, kasu hauetan izan ezik: Tabako-merkataritzan parte hartzen duten profesionalentzat bakarrik diren argitalpenak.

C) Nikotina aska dezaketen gailuak. Debekatua dago nikotina aska dezaketen gailuen publizitate guztia, kasu hauetan izan ezik:

- Produktu hauen merkataritzan parte hartzen duten profesionalentzat bakarrik diren argitalpenetan.

- Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetan editatutako edo inprimatu diren eta horrelako produktuen publizitatea daukaten argitalpenak, betiere, adingabeei zuzenduak ez badira.

4. artikulua. Promozioaren mugak

Honako muga hauek ezartzen dira adierazitako produktuen publizitatean:

A) Alkohola. Debekatua egongo da adingabeen artean edari alkoholodunak sustatzea, edozein bitarteko erabilita ere: kartelak, prospektuak, gonbidapenak, edota edari alkoholodunak, markak, enpresa banatzaileak edo horiek kontsumitzen diren establezimenduak aipatzen dituzten objektuak.

Edari alkoholodunen gehiegizko kontsumoa eragin dezaketeko sustapenak debekatuta egongo dira; batez ere, edari alkoholodunak bertan kontsumitzeko saltzen diren establezimenduen barruan egindako eskaintzak, sariak, zozketak, konkurtsoak edo prezio murrizketak.

Azoketan, erakusketetan edo antzeko jardueretan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholodunak promozionatzen badira, gainerako guneetatik bereizitako tokietan egin beharko da eta adingabeak sartzeko debekatuko da ez baldin badoaz adinez nagusi diren pertsonak lagunduta. Sarreran, debeku hori jasotzen duen kartela jarriko da.

B) Tabakoa. Debekatua dago tabako produktuen babesletza eta beste edozein sustapen-modu, edozein dela ere horretarako bideak eta euskarriak, banagailuak barne, eta, betiere, alde batera utzita sektoreko profesionalak egiten dituzten aurkezpenak. Jarduera horiek ez dira inoiz erakuslehoetan egongo, ezta establezimendu horietatik kanpo hedatuko, edota kanpora zuzenduko ere.

Debekatuak egongo dira zuzenean edo zeharka tabakoa promozionatzeko jarduerak eta tabako-produktuen, -ondasunen edo -zerbitzuen doako edota promoziorako banaketa.

Debekatuta egongo da dena delako markak, gauzakiak edo produktuak, izenagatik, erabilitako hitzengatik, grafismoagatik, aurkezteko moduagatik edo beste arrazoiren batengatik zeharka edo erdi ezkutuan tabakoaren publizitatea egitea, tabako- eta tinbre-saltokien sarean edo tabakoaren sektoreko profesionalen jardueren kasuan izan ezik.

C) Nikotina aska dezaketen gailuak: Debekatuak daude nikotina aska dezaketen gailuen babesletza nahiz bestelako sustapen moduak, bidea edo euskarria edozein dela ere, banagai-luak barne, salbu eta saltzen diren establezimenduetan, eta, betiere, adingabeei zuzenduak ez badira edo produktuaren banaketa doakoa ez bada.

Debekatuta egongo da zuzenean edo zeharka produktu horiek sustatzeko jarduerak edo produktuen, ondasunen edo zerbitzuen doako edo sustapenezko banaketa, produktu horiek saltzen diren saltokien sarean izan ezik.

Debekatuta egongo da dena delako markak, gauzakiak edo produktuak, duen izenagatik, erabilitako hitzengatik, grafismoagatik, aurkezteko moduagatik edo beste arrazoiren batengatik, zeharka edo erdi ezkutuan nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea egitea, produktu horiek saltzen diren establezimenduetan izan ezik.

Debekatua dago nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea egitea ekitaldi sozialetan, kulturaletan, kirol-ekitaldietan eta hezkuntza-ekitaldietan edo haiek babestekoetan; debeku bera egongo da lehiaketan, zozketan eta kontsumoa eragiteko antzeko beste jardueren bidez egindako sustapenetan ere.

5. artikulua. Kanpoaldeko nahiz barrualdeko publizitatea

1. Debekatuta egongo da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholduen publizitatea egitea aire zabalean.

2. Halaber, debekatua dago alkoholduen edarien publizitatea egitea Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ateetatik 100 metro lineal baino gutxiagora kokatutako kanpo-euskarrietan.

3. Debekatua dago edari alkoholduen publizitatea jartzea lokal eta establezimendu hauetan:

A) Batez ere 18 urtez beherako pertsonentzat diren lokaletan.

B) Osasun zentroetan, gizarte-etxeetan, zentro soziosanitarioetan eta ikastetxeetan nahiz horien guztien sarbideetan.

C) Zinema-aretoetan eta ikuskizunak ematen diren aretoetan.

D) Garraio publikoaren barrualdean nahiz geltokietan.

E) Administrazio publikoen egoitzetan eta kirolerako instalazio eta zentroetan.

F) Debekatu egin da edari alkoholduen publizitatea egitea postontzietan orriak sartuta, posta bidez bidalita, telefonoz deituta, modu telematikoan igorrita eta, oro har, bizilekura bidalitako mezuen bidez, salbu eta 18 urte baino gehiagoko pertsonen izenean bidaltzen badira, edo publizitate-euskarrian doan edukiaren ehuneko 30 baino gutxiago badira.

6. artikulua. Publizitatea hedabideetan

1. Jarraian ageri diren mugapenak izango dituzte udal egunkari, aldizkari eta bestelako argitalpenek, baita Udalak argitaratutako edo Udalaren laguntzaz argitaratutako beste edozein erregistro- edo erreproduktzio-bideek ere, irudizkoek, zein soinuizkoek:

A) Debekatua dago hedabide horietan edari alkoholduen, tabakoaren edota nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea egitea, baldin eta 18 urtetik beherakoentzat badira.

B) Gainerako kasuetan, debekatua dago edari alkoholduen, tabakoaren edota nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea jartzea lehenengo orrialdean, kirolei buruzko orrialdeetan, 18 urtez beherakoei zuzendutako tartean edota denbora-pasak dauzkaten tartean.

2. Debekatua dago tokiko irratiek edota telebistek edari alkoholduen publizitatea egitea 08:00etatik 22:00etara.

3. Debekatua dago tokiko irrati eta telebistetatik igortzea pertsonekin batera alkoholduen edariak, tabakoa edota nikotina aska dezaketen gailuak agertzen dituzten programak, baita horien markak, izen komertzialak, logotipoak eta produktu horiei lotutako bestelako identifikazio-ikurrak agertzen dituztenak ere.

7. artikulua. Publizitatea egiteko bestelako erak

1. Debekatua dago izenarengatik, erabilitako hitzengatik, grafismoarengatik, aurkezteko moduarengatik edo beste arrazoiren batengatik, zeharka edo erdi ezkutuan edari alkoholduen publizitatea egiten duten marka, gauzakia edo produktuen publizitatea egitea.

2. Debekatua dago alkoholduen edarien, tabakoaren edota nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea egitea ekitaldi sozialetan, kulturaletan, kirol-ekitaldietan, hezkuntza-ekitaldietan, baita produktu horiek promozionatzeko bestelako bideak erabiltzea ere, esaterako, lehiaketak, zozketak eta kontsumoa eragiteko antzeko beste jarduerak.

II KAPITULUA: EDARI ALKOHOLDUNAK, TABAKOA EDOTA NIKOTINA ASKA DEZAKETEN GAILUAK HORNITU ETA SALTZEKO MUGAPENAK

8. artikulua. Edari alkoholduenak

1. Debekatua dago 18 urtez beherakoei alkoholduen edariak saltzea edo hornitzea.

2. Debekatuta dago 16 urtetik beherakoak establezimendu publiko itxietan sartu eta egoitea, baldin eta establezimendu horiek edari alkoholduenak zerbitzatzen badituzte, hala nola tabernetan, jai-aretoetan edo ikuskizunetan, diskoteketan eta, oro har, alkohola saltzen edo kontsumitzen den edozein tokitan, salbu eta gurasoen edo arduradunen laguntza badute.

3. Pertsona hauek debekatua dute edari alkoholduenak kontsumitzea, zerbitzua eskaintzen ari direla edo zerbitzua eskaintzeko prest badaude:

A) Zerbitzu publikorako ibilgailuak gidatzen dituztenek.

B) Osasun-, gizarte- nahiz hezkuntza-zentro publiko zein pribatuetako pertsonak.

C) Kidego armatuetako kideek eta beren eginkizunetan armak eraman behar dituzten profesionalak.

D) Adingabeekin lan egiten duten pertsonak.

E) Oro har, beren jarduera edari alkoholduen eraginpean bideratuz gero, norbere edo beste pertsona batzuen bizitza nahiz osotasun fisikoa arriskuan jar lezaketenez guztiek.

4. Debekatua dago alkoholduen edariak saldu eta hornitzea establezimendu itxietan eta 1. para grafoan aipatutako debekuak betearazteaz arduratuko den pertsonaren bistan ez dauden makina automatikoen bidez.

5. Leku hauetan debekatua dago edari alkoholduen saldu, hornitu eta banatzea:

A) Egiten dituzten jarduerengatik eta eskaintzen dituzten zerbitzuengatik batez ere 18 urtez beherakoentzat diren lokal eta zentroetan (kulturalak, kiroletarakoak, jaietarakoak).

B) Gizarte zentroetan, jaietarako lokaletan eta, oro har, nagusiki adingabeek erabiltzen dituzten lokal pribatuetan.

C) 18 urtera arteko ikasleentzako ikastetxeetan.

D) Kirol lehiaketak egiten diren instalazioetan eta zentro sanitario, sozio-sanitario eta zerbitzu sozialetakoetan.

E) Bide publikoan, salbu eta terrazetan, mahai hankabakarretan edota Udalak beren-beregi baimendutako ekintza eta jardueretan.

6. Debekatua dago 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholduak saldu, hornitu edo banatzea leku hauetan:

A) 18 urte baino gehiagoko ikasleentzako irakaskuntza-zentroetan.

B) Administrazio publikoen egoitzetan.

C) Jolasguneetan (esaterako, parkeetan) eta aisialdirako edota dibulgaziorako beste guneetan.

7. Debekatua dago edari alkoholduak saldu, hornitu edota banatzea bertan kontsumitzera zuzenduak ez dauden establezimendu komertzialetan 22:00etatik 07:00etara, haien ordutegi-araubidea edozein izanda ere. Establezimendu horiek neurri bereziak hartu beharko dituzte adingabeei alkohola saltzea ekiditeko.

Autozerbitzuko establezimenduetan, atal zehatz batean ipini beharko dira ikusgai edari alkoholduak eta, gutxienez, lurretik 1,50 metro gora. Gainera, ezingo zaie erakusleihoaren azaleraren ehuneko 20 baino gehiago eskaini. Edari alkoholduak autozerbitzuko establezimenduaren barruko barra baten atzean saldu ahalko dira, baldin eta pertsona batek salmenta kontrolatzen badu edo alkohola bitrina batean eta giltzapetua badago.

8. Aurreko paragrafoetan aipatutako leku guztietan ipini beharko dira adierazitako debekuak dagozkien kartelen bidez, erraz ikusteko moduko lekuan.

Halaber, edari alkoholduak saltzen diren establezimendu edo jarduera orotan, kartelak jarri beharko dira ikusteko moduko lekuan, adingabeei alkohola saltzea debekatua dagoela adierazteko.

9. artikulua. Tabakoa eta nikotina aska dezaketen gailuak

1. Tabako eta tinbre saltokien sarean baino ezingo dira saldu edo hornitu tabako-produktuak txikizka, edo establezimenduetan kokatutako banagailuetan, betiere, kasuan kasuko baimen administratiboak lortu ostean.

2. Debekatua dago 18 urtetik beherako pertsonen tabakoa edota tabako-produktuak saltzea edo hornitzea, baita produktu horien kontsumoa susta dezaketen imitazioak edota nikotina aska dezaketen gailuak saltzea edota hornitzea ere.

3. Debekatua dago tabakoa eta nikotina aska dezaketen gailuak saltzea kasu hauetan:

A) Makina automatikoen bidez, ez baldin badaude establezimendu itxietan eta 1. paragrafoan jasotako debekua betearazteko ardura duen pertsonaren kontrolpean. Baragailuek mekanismo tekniko egokiak izan beharko dituzte adingabeei eragozteko ordenantza honetan araututako produktuak erostea. Makina horien bidez ezin izango da banatu tabakoa ez den ezer. Makinen aurrealdean, argi eta ikusteko moduko ohar bat agertuko da euskaraz eta gaztelaniaz, tabakoaren erabilerak osasunean eragiten dituen kalteez ohartarazteko, adingabeei dagokienez bereziki.

B) Osasun-zentroetan, 18 urtera arteko ikasleak dituzten ikastetxeetan, eta leku horietako egoitza eta aretoetan.

C) Kirol-instalazioetan.

D) Ematen dituzten jarduera eta zerbitzuen ondorioz, batez ere 18 urtez beherakoek erabiltzen dituzten zentro eta lokaletan.

E) Halaber, indarrean dauden legeetan ontziratze eta etiketatzeari dagokienez xedatutako arauak betetzen ez direnean; beraz, debekatua dago zigarretak banaka saltzea, baita adinez nagusi diren pertsoneri saltzea ere.

III KAPITULUA: EDARI ALKOHOLDUNEN, TABAKOAREN ETA NIKOTINA ASKA DEZAKETEN GAILUEN KONTROLA, HIRUGARRENENGAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN HEINEAN

10. artikulua. Alkoholaren kontsumoa

1. Debekatua dago 18 urtez beherako pertsonen edari alkoholunak kontsumitzea.
2. Pertsona zehatz hauek ezingo dute edari alkoholunak kontsumitu, zerbitzua eskaintzen ari direla edo zerbitzua eskaintzeko prest badaude:
 - A) Zerbitzu publikorako ibilgailuak gidatzen dituztenek.
 - B) Osasun-, gizarte- nahiz hezkuntza-zentro publiko zein pribatuetako pertsonen.
 - C) Kidego armatuetako kideek eta beren eginkizunetan armak eraman behar dituzten profesionalak.
 - D) Adingabeekin lan egiten duten pertsonen.
 - E) Oro har, beren jarduera edari alkoholun eraginpean bideratuz gero, norbere edo beste pertsona batzuen bizitza nahiz osotasun fisikoa arriskuan jar lezaketen guztiek.

11. artikulua. Tabakoaren kontsumoa eta nikotina aska dezaketen gailuak

1. Debekatua dago erretzea erabilera publikoko gune itxi eta erdi-itxi guztietan, baita herritarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolektibokoak diren lekuetan ere, titulartasuna publikoa zein pribatua izan.
2. Zehazki, debekatua dago erretzea edota nikotina askatzen duten gailuak erabiltzea leku hauetan:
 - A) Haurtzaindegietan eta 18 urtez beherakoentzat diren gizarte-arretako zentroetan.
 - B) Haur-parkeetan eta haurrentzako jolastoki edo jolas-eremuetan, berariaz adingabeen jolaserako eta olgetarako ekipamendua edo egokitzapenak dituztenean eta behar bezala mugarrituak daudenean; baita aire zabalean ere.
 - C) Osasun-zentro, zerbitzu eta establezimenduetan, eta horien areto eta egoitza guztietan.
 - D) Gizarte-zerbitzuetako zentroetan.
 - E) Ikastetxeetan.
 - F) Administrazio publikoen egoitza guzti-guztietan, alde batera utzita aire zabalekoak;
 - G) Elikagaiak prestatu, eraldatu, manipulatu, fabrikatzen edota saltzen diren lekuetan, alde batera utzita batez ere elikagaiok kontsumitzeko diren establezimenduak, eta, edonola ere, elikagaiak manipulatzeko dituztenek erretzea debekatua izanda;
 - H) erabilera publiko orokorreko aretoetan, irakurketa-aretoetan eta erakusketa-aretoetan, esaterako, museo, liburutegi eta erakusketa edo konferentziatarako espazio itxietan;
 - I) Kirol-instalazioak, eta horiei erantsitako zonalde itxietan, erdi-itxietan eta aire zabalekoetan (aire libreko azken zonalde horietan, ostalaritza-espazioei erantsitako espazioak gaitu ahalko dira, betiere, behar bezala mugatuta eta seinaleztatuta);
 - J) Jende ugari bildu ohi duten merkataritza-lokal itxietan;
 - K) Igogailuetan eta jasogailuetan;
 - L) Tabernetan, jatetxeetan eta sukaldaritzako gainerako establezimendu itxi edo erdi-itxietan;

M) Lantoki publikoetan eta pribatuetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik;

N) Osasun-zentro, -zerbitzu eta establezimenduetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere;

Ñ) Hiri-garraioko gune guztietan (bagoi, nasa, korridore, eskailera, geltoki eta abarretan), erabat aire zabalean daudenetan izan ezik;

O) Araudiak erretzea debekatzen duen beste edozein gune.

Salbuespen gisa, adineko pertsonak, buruko eritasunen bat dutenek, toxikomaniaren bat dutenek edota, bestelako osasun-arrazoiengatik espazio itxi jakin batzuetan itxita duden pertsonak, erre ahal izan dezaten, betiere, erretzeko zehaztu diren espazioak fisikoki bereziak badaude gainerako aretoetatik eta aireztatze-sistema egokia badute tabakoaren kea kanporatuko dela bermatzeko. Erretzeko egokitutako eremua ez da inola ere establezimenduaren azaleraren ehuneko 10 baino handiagoa izango, eta ez da inola ere onartuko bertan adingabeak sartzea.

II. TITULUA: ANTOLAMENDU INSTITUZIONALAZ ETA GIZARTE-EKIMENAREN SUSTAPENAZ

12. artikulua. Antolamendu instituzionala eta gizarte-ekimenaren sustapena

1. Udalak sustatu egingo ditu ordenantza honen helburu berberak dituzten ekimen pribatuak, eta, hala dagokionean, diruz ere lagundu ahalko ditu.

2. Halaber, merkataritza lokalek eskatzen badute, aplikagarri zaizkien ordenantzako araei buruzko kartelak ere emango dizkie.

3. Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Arreta Integralerako 1/2016 Legean oinarrituta, Udalak aditzera emango dizkio Batzordeari legearen garapenari eta estrategia desberdinen garapenari buruzko alderdiak.

III. KAPITULUA: DROGEN KONTSUMOA PREBENITZEKO NEURRI OROKORREZ

13. artikulua. Poliziaren jarduna

Udalerrriaren barruan diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko poliziek, eta, bereziki, Udaltzaingoak legez kanpoko droga-trafikoa ikertzeaz gain, lankidetzan arituko dira substantzia mendekotasun-sortzaileen eskaintza murrizteko eta horien kontsumoa prebenitzeko esparruan dagozkien esku-hartze guztiak bideratuta.

Horretarako, adikzioa sortzen duten substantzien sustapenarekin, publizitatearekin eta salmentarekin zerikusia duten egileak identifikatzeko lan zorrotza egingo du, dagokion espedientea hasteko.

IV. TITULUA: ARAU-HAUSTEEZ ETA ISUNEZ

14. artikulua. Arau-hausteak

1. Arau-hauste administratiboak dira Eusko Legebiltzarrak gaiari buruz emandako lege-maialako araudian eta ordenantza honetan tipifikatutako egite eta ez-egiteak.

Kapitulu honetan jasotako zehapen-araubideak ez du eragotziko Estatuko legeriak aurreikusten dituen araubide espezifikoko aplikatzea herritarren segurtasunari, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari, publizitateari, osasunari, sendagaiei eta gizarte-zerbitzuei, bai eta antzemandako ekintzen edo ez-egiteen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun zibilak, penalak edo bestelakoak ere.

2. Arau-haustea Administrazioaren iritziz delitu edo falta izan badaiteke, administrazio-organok Fiskaltzari jakinaraziko dio, haren esku uzteko, eta ez du zehapen-prozedurarekin jarraituko harik eta agintaritza judizialak epaia eman arte.

3. Ez da egintza eta babestutako interes publiko beraren ondoriozko zehapen bikoitzik jarriko; dena den, batera gertatzen diren beste egintza edo arau-hauste batzuetatik eratorritako erantzukizunak exijitu beharko dira.

15. artikulua. Arau-hauste motak

1. Arau-hauste administratiboak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke eta ordenantza honetan Udalaren eskumeneko arau-hausteak baino ez dira tipifikatuko, baina autonomia erkidegoko legedian tipifikatutako arau-hauste larriak nahiz oso larriak ere egon litezke, eta horien gaineko eskumena Euskal Administrazio barruko kasuan kasuko organoek izango dute.

2. Hauek dira arau-hauste arinak:

A) 18 urtez beherakoek edari alkoholdunak kontsumitzea.

B) Debekatua dagoen lekuetan edari alkoholdunak kontsumitzea.

C) Edari alkoholdunak zerbitzatzeko dituzten establezimendu publiko itxietan 16 urte baino gutxiagokoei sartzeko eta egoten uztea adinez nagusi den pertsonen laguntza barik, eta debeku horren berri ematen duen kartelik ez edukitzea.

D) Debekatua dagoen lekuetan edo beren-beregi prestatutako lekuetatik kanpo erretzea edota nikotina aska dezaketeko gailuak erabiltzea.

E) Edari alkoholdunak saltzea eta banatzea debekatuta dagoen establezimenduetan, ez jartzea hori adierazten duten kartelik.

F) Edari alkoholdunak saltzen diren establezimendu edo jardueretan ez ipintzea adingabeei edari alkoholdunak saltzea debekatua dagoela adierazteko kartelik ikusteko moduko leku batean.

G) Tabako-produktuak edo nikotina aska dezaketeko gailuak saltzen diren establezimenduetan ez jartzea adingabeei gailu horiek saltzea debekatua dagoela eta osasunerako kaltegarriak direla dioen kartelik ikusteko moduko leku batean.

H) Beharrezko osasun-ohararazpena ez izatea tabakoa edota nikotina aska dezaketeko gailuak saltzen dituzten makinetan.

I) Establezimenduen sarreretan ez adieraztea debekatua dagoela erretzea eta nikotina aska dezaketeko gailuak erabiltzea.

3. Hauek dira arau-hauste larritzat joko diren jokabideak osasunerako arrisku edota kalte larria eragiten dutenean:

A) Adingabeei edari alkoholdunak saltzea, banatzea edo hornitzea eta horiek kontsumitzea debekatuta duten profesionalen saltzea, hornitzea edo banatzea,

B) Edari alkoholdunak saltzea, hornitzea edo banatzea banagailu edo makina automatikoen bidez;

C) Debekatua dagoen lekuetan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholdunak saltzea, banatzea edo hornitzea;

D) Edari alkoholdunak saltzea, hornitzea edo banatzea edari alkoholdunak bertan kontsumitzera zuzenduta ez dauden establezimendu komertzialetan 22:00etatik 07:00ak arte;

E) Establezimendu komertzialek neurri berezirik ez hartzea adingabeei alkohola ez saltzeko;

F) Adingabeei edari alkoholdunen ontziak imitatzen dituen edozein produktu saltzea, hornitzea edo banatzea;

G) Zerbitzuak eskaintzen ari diren edo zerbitzua eskaintzeko prest dauden profesionalen edari alkoholdunak kontsumitzea, 7.2 artikuluan xedatutakoaren arabera;

H) edari alkoholdunen publizitateari eta promozioari dagokienez ezarritako betebeharrak eta debekatuak ez betetzea, betiere, osasunari arrisku edo kalte oso larriak ez badakarkio;

I) Erretzen uztea edo nikotina aska dezaketen gailuak erabiltzen uztea debekatua dagoen lekuetan,

J) Debekatua dagoen establezimenduetan erretzeko guneak egokitzea;

K) Tabakoa, tabako-produktuak, tabako-lanak edota nikotina aska dezaketen gailuak saldu, hornitu edo banatzea adingabeei;

L) Tabakoa imitatzen duten eta, beraz, tabakoa kontsumitzera bultzatzen dituzten produktuak saldu, banatu edo hornitzea,

M) Zigarretak banaka edo 20 unitatetik beherako paketeetan merkaturatu, saldu edota hornitzea;

N) Tabakoa ematea, hornitzea edo banatzea merkataritza- edo enpresa-jarduera gisa edota doan;

Ñ) Esanbidez debekatua dagoen lekuetan nikotina aska dezaketen gailuen edo tabakoaren banagailuak instalatzea;

O) Adingabeei nikotina aska dezaketen gailuen edo tabakoaren banagailuak erabiltzen uztea;

P) Hiru arau-hauste arin egitea urtebetean.

16. artikulua. Berrerortzea eta errepikatzea

1. Berrerortzetzat joko da arau-hauste bat egin duenak izaera bereko beste arau-hauste bat egitea urtebeteko epean, betiere, ebazpen irmoz hala baieztatu bada.

2. Ordenantza honen zehapen-araubidearen ondoretarako, izaera bereko arau-haustetzat joko da ordenantza honen 15. artikuluan zehaztutakoaren arabera sailkatzeko arrazoi mota berari erreferentzia egiten dion arau-haustea.

17. artikulua. Erantzukizuna

1. Arau-haustea egin duen pertsona fisiko edo juridikoari egotziko zaio ordenantza honetan jasotzen diren arau-hausteen ondoriozko administrazio-erantzukizuna. Ondore horietarako, egiletzat hartuko da:

A) Tipifikatutako portaera zuzenean edo beste pertsona baten bitartez gauzatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa. Bitartekari gisa jardun duen pertsona ere egiletzat hartuko da baldin eta borondatez jardun badu.

B) Tipifikatutako portaera gauzatu ahal izateko ezinbestez burutu beharreko egintza bat burutzen lagundu duen pertsona fisiko edo juridikoa.

2. Arau-haustearekin batera erantzule solidario izango dira establezimendu, zentro, areto edo enpresako titularrak, baita titularrarengandik kasuan kasuko prebentzio-ekintza zaintzeko enkargu espezifikoa jasotzen duten pertsonak ere.

3. Erantzulea pertsona juridikoa denean, zigortu nahi den egintza edo omisio zehatzean pertsona juridiko horren borondatea eratu duten pertsona fisikoei egotziko zaie erantzukizuna.

18. artikulua. Zehapenak

1. Ordenantza honen objektua denez prebentzio-xedea nabarmentzea zigor-xedearen gainetik, zehapenak ordeztzeko edo arintzeko hautua lehenetsiko da legeak ahalbidetzen duen heinean. Zigorren ordeza, eta alderdien adostasuna medio, prebentzio-ekintza efikazak xedatu ahalgo dira, bereziki, lehenengo arau-haustearen ostean.

2. Ordenantza honetan jaso diren arau-hausteeek honako zehapen hauek ekarriko dituzte:

A) Ohartarazpena.

B) Isuna.

C) Jarduera aldi baterako etetea edo, hala badagokio, establezimendu, zentro, zerbitzu, areto edo enpresa osoki edo partzialki ixtea aldi baterako, baina, gehienez ere, bost urterako.

D) Edozein laguntza publiko eskuratzeko debekua, gehienez ere bi urterako.

3. Aurreko zehapenetako bat ezartzeak arau-haustearekin zuzeneko zerikusia duten salgaien edo gauzakien konfiskazioa edota horien suntsiketa eragin ahalko du ondorio osagarri gisa, egoerak horrela eskatzen badu.

Aurreko atalean araututako konfiskazioa eraginkorra izan dadin, organo instruktoreak aukera izango du behin-behineko neurri gisa salerosgai edota gauzakien kautelazko konfiskazioa adosteko, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko Estatuko legedian nahiz Eusko Legebiltzarrak otsailaren 20an emandako 2/1998 Legean, Euskadiko Administrazio Publikoen Zehapen Ahalari buruzkoan xedatutakoarekin bat.

Eusko Legebiltzarraren otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 32. artikuluan, funtzionario ikuskatzaileek salbuespenezko izaeraz kautelazko neurriak hartzea arautzekoan xedatutakoari jarraikiz, funtzionario ikuskatzailetzat jotzen dira ustezko arau-hauste diren egintzak egiaztatzerakoan zerbitzuan ziharduten udaltzainak. Udaltzainek akta bat idatzi beharko dute, zeinetan adieraziko baitute kautelaz hartutako konfiskazio-neurriaren nondik norakoak eta neurriaren xede zehatza.

Idatzi zati honetan araututako kautelazko neurriak aplikatzen diren kasuetan, urgentziaz hasiko da dagokion zehapen-prozedura, eta haste-egintza horretan, zehatzeko eskumena duen organoak hartutako neurriak balio gabetu, bere horretan utzi edo aldatzeko erabakia hartuko du modu arrazoituan, horren ostean, zehatze-prozedurei buruzko legedian jasotako alegazio-izapidea egingo da.

4. Zehapen-prozeduratik eratorritako administrazio-erantzukizunez gain, arau-haustearen ondorioz aldaturiko egoera lehen-eratzeko eska dakieke erantzuleei, eta arau-haustearen ondorio diren kalte eta galerengatiko ordainak emateko ere bai, arau-hausteak eragindako kalteak edo galerak ordaintzeko.

19. artikulua. Zehapenen mailaketa

1. Isunen zenbatekoa eta gainerako zehapenen aplikazioa zehazteko, irizpide hauek hartuko ditu aintzat organo eskumendunak:

A) Osasunari eragindako arriskuaren edota kaltearen larritasuna. Inguruabar horri dagokionez, ulertu egingo da larritasuna handitu egiten dela ustezko arau haustearen pairatzaileen adinak behera egiten duen heinean;

B) Erruduntasun edo nahitasun maila;

C) Eragindako aztoramendua edota inpaktu soziala;

D) Lortutako etekinaren zenbatekoa;

E) Arau-hauslearen gaitasun ekonomikoa;

F) Berrerortzea edota errepikatzea;

2. Zehapena zenbatetsi eta mailakatzeko, hauek hartuko dira kontuan aringarri oso kualifikatu gisa:

A) Galarazitako jarduerak eteteko eskatzen zaionean, ustezko arau-hausleak eskaera horri jaramon egitea.

B) Arau-hausleak frogatzea zehapen-espeditari buruzko erabakia hartu baino lehen, eta Zuzenbidean baliozko den edozein bide erabilita, prozedura hastea ekarri zuen portaeraren ondorioak arindu edo erabat zuzendu dituela.

20. artikulua. Zehapenak ezartzea

1. Honela aplikatuko dira zehapenak:

A) Arau-hauste arinak zehatzeko, ohartarazpena edota 30,00 eta 600,00 euro bitarteko isuna ezarriko da.

B) Arau-hauste larriengatik, 600,00 eta 10.000,00 euro bitarteko isuna ezarriko da, eta, horrez gain, jarduera aldi baterako etenarazi ahalko da edota establezimendua, zentroa, aretoa edo enpresa osoki edo partzialki itxiarazi, gehienez ere bi urterako.

2. Arau-hauste larrien ondoriozko zehapenen kasuan, eta, betiere, zehapenak irmoak badira eta egokitzat jotzen bada, zehapen osagarri gisa aplikatu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko legeetan jasotako dirulaguntzak jasotzeko debekua. Kasu horretan, zehapen-neurri hori hartu izana jakinarazi beharko da.

3. Nolanahi ere, bildutako zenbatekoa adikzioak prebenitzeko programen finantzazioan edo prebentzio-estrategietan erabiltzen saiatuko da udal administrazioa.

4. Ez dute zehapen izaera edukiko beharrezko baimena ez duten establezimenduetan antzemandako akatsak zuzendu arte edo jarduteko eskatzen diren baldintzak bete arte ixteko nahiz jarduera edo funtzionamendua eteteko ebazpenek. Kasu horietan, toki araubideari buruzko legeetan zehaztutako prozedura aplikatuko da.

21. artikulua. Zehapenak konmutatzea

1. Ordenantza honi prebentziorako eta berrezkuntzarako izpiritua emateko asmoz, aukera egongo da arau-hauste arin edo larrien ondorioz ezarritako zehapen ekonomikoak konmutatzeko kasu hauetan:

A) Arau-hausleak onartu egiten badu adikzioen prebentzioari buruz sentsibilizatzeko esku-hartze batean parte hartzea, edota

B) Arau-hausleak alkohol eta tabako kontsumoaren prebentzioari eta kontsumo horrek osasunean dituen eraginei buruz eman edo garatu litezkeen ikastaro edota jardueretan parte hartzen badu, Laudio Udalak zehaztuta.

2. Zehapena konmutatu edo ordeztzeko aukera hori borondatez baliatu ahalko dute ordenantza honetan arin edo larri gisa kalifikatutako ustezko arau-hausteak egin dituztenek, baldin eta izaera horretako (izaera larri edo arineko) lehenengo arau-haustea bada.

22. artikulua. Preskripzio-araubidea

1. Ordenantza honetan jasotako arau-hauste administratibo larriek bi urteren buruan preskribatuko dute, eta arinak sei hilabeteren buruan.

2. Arau-hauste larrien ondoriozko zehapenek bi urteren buruan preskribatuko dute, eta arau-hauste arinen ondoriozkoek urtebeteren buruan.

23. artikulua. Zehapen-prozedura

1. Edozein pertsonak aurkeztu dezake salaketa, banaka zein kolektiboki, udal organo eskumendunaren aurrean (Udaltzaingoa, Alkatetza, eta abar) ordenantza honen urratzeengatik, herritar guztiek dituzten eskubideak eta erantzukizuna baliatuta.

2. Estatuko oinarrizko legerian eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahala arautzen duen legerian xedatutakoari jarraitu beharko zaio zehatze-ahala egikaritzeko.

24. artikulua. Ebazteko eskumena

1. Alkate-udalburuak du eskumena arau-hauste arinen ondoriozko espediente guztiak ebazteko, baita ordenantza honetan beren-beregi araututako arau-hauste larriak ebazteko eskumena ere. Eskumen hori eskuordetu ahalko da, baina, betiere, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko legeria orokorrean zehaztutako baldintzetan.

2. Droga-mendekotasunekin erlazionatutako gaien inguruko eskumenak dituen saileko organoak izapidetu eta ebatziko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko legerian larri gisa tipifikatutako gainerako arau-haustekak.

3. Espedientea izapidetzen den bitartean, izendatutako instruktoreak irizten badio zehatzeko eskumena ez dagokiola Toki Administrazioari, jarduketak igorri beharko zaizkio eskumena duen administrazioari alkate-udalburuaren bitartez, prozedurarekin jarraitu dezan uneko fasetik aurrera.

4. Izapidetzen ari den espedienteen berri emango dio Toki Administrazioak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari, espedientearen kopia fede-emailea bidalita ordenantza honen 17.1 c) artikuluan jasotakoaren arabera arau-hauste larrien ondoriozko zehapen-ebazpenekin batera; bidalketa hori egiteko, hamar laneguneko epea izango du Toki Administrazioak, espedientea hasteko ebazpenaren egunetik aurrera zenbatuta.